



ZARAUZKO UDALA

GAZTELEKUAREN FUNTZIONAMENDURAKO BARNE ARAUDIA

Xedapen orokorrak

1. artikulua

Arautegi honen helburua gaztelekua (Zigordia kalea, 34 - Zinema pilotalekua) erabili eta funtzionatzeko arauak ezartzea da.

2. artikulua

Zarauzko Udaleko Gazteri Ordezkaritzak, zarauztar gazteei erlazio gune bat eskaintzeko sortutako ekipamendua da gaztelekua, parte hartzea eta giza kultur dinamizazioa sustatu eta sendotzeko asmoz.

3. artikulua

Zerbitzugintza bidez kudeatu eta zainduko da gaztelekua, zaintza eta funtzionamenduaz arduratzeko Udalak beharrezko teknikari eta langileak jarritz.

4. artikulua

Herri zerbitzuak ematen ditu gaztelekuak, zarauztar gazteen beharrei erantzun nahian, gune eta baliabideak eskainiz. Era berean, iharduerak antolatu ahal izango dira.

Gune eta zerbitzuak erabiltzeko arauak

5. artikulua

Gela hauek ditu gaztelekuak: bilera gela, irakurketa txokoa, areto balioanizduna, ikuskizunetarako gela, arte plastikoko tailerra eta gorputz espresio gela. Ondoko betebeharrak betetzen dituzten pertsonak eta elkarteak erabili ahalko dute lehentasunarekin ekipamendua.

- 15 eta 29 urte bitarteko edozein zarauztar gazte.
- Egoitza finkoa ez duen eta gehiengo batean gazteez osatutako herriko taldeak (aldi baterako).

Halaber, beste hauek ere erabil dezakete gaztelekua: gazte edo zarauztar ez den jendea, herriko talde eta elkarteak, gazteentzako zerbitzuak ematen dituzten entitateak eta gazteen aldeko lanean ari diren beste entitate edo erakunde batzuek.

6. artikulua

Gaztelekua ez da gazteek gaztelekuan antolatutako iharduerez edota emandako iritziez arduratuko.

7. artikulua

Antolatzaileen esku jarritako lokal eta materialak behar bezala zaindu eta erabiliko dira; gazteak eta elkarteak arduratuko dira behar bezala erabili ez den materiala konpontzeaz, birjartzeaz edo, hala behar denean, ordaintzeaz.

8. artikulua

Gazteek eta elkarteek gaztelekua erabiltzean elkarbizitza eta elkarrekiko begirunearen oinarritzko printzipioak beteko dituzte, erabiltzaile batek egiten duenak beste batek egindakoa kaltetu gabe.

9. artikulua

Erabiltzaileek jakinarazi beharko diete gaztelekuko arduradunei lokaletan edo ihardueraren funtzionamenduan zehar somatzen duten edozein anomalia edo irregulartasun.

10. artikulua

Aretoak ez zaizkio inola ere gazte elkarte edo entitate bati utziko eskusibitatez.

11. artikulua

Ezingo da gaztelekuan dirua irabazteko asmorik duen iharduerarik egin. Hala ere, bai gaztelekuak berak, bai gazteek eta taldeek antolatzen dituzten ihardueren gastuak murrizteko prezio publikoak ordaintzea eska daiteke.

12. artikulua

Gazteek eta taldeek guneak gaztelekuaren ordutegiaren barruan erabiltzeko ez dituzte nahita nahi ez erreserbatu behar; hala ere, gela bat erreserbatu ezker, lehentasuna izango du erreserbatzaileak. Gaztelekua orduz kanpo erabiltzeko edo iharduera bereziak antolatzeko erreserba eta baimena beharrezkoak izango dira.

13. artikulua

Gazteek areto jakin bat erabili ondoren behar bezala utzi beharko dute, gero gainerako erabiltzaileek prest aurkitu dezaten.

14. artikulua

Gaztekuak jendearentzako honako ordutegi hau izango du:

- Egunero 10:00etatik 13:30etara eta 16:00etatik 21:00etara.

15. artikulua

Erakusketak eta kontzertuak antolatzeko, zein ikuskizunetarako gelan zein gaztelekuko beste edozein gunetan ere, idatzizko eskaera bat aurkeztu beharko da aurretik (sarrerarik balego, prezioen berri ere eman beharko da baimena jasotzeko). Lagapenerako eskaera egindako gazteak edo taldeak izango du iharduera eta gunearen ardura, beraz, bere gain geratuko dira prestaketa, zaintze eta jasotze lanak.

16. artikulua

Gaztelekuko arduradunak emango ditu lagapen baimenak, interesatuek idatziz eskatu ondoren.

17. artikulua

Gazteek gaztelekuan eskaini daitezkeen beste zerbitzu batzuk ere erabili ahal izango dituzte. Zerbitzu horiek erabiltzerakoan prezio publikoak ordaintzea eska daiteke.

Erabiltzaileen betebeharrak**18. artikulua**

Gaztekuaren erabiltzaileek honako betebeharrak izango dituzte:

- Arautegi honek xedatutako guztia betetzea, funtzionamendu egokia eta gainerako erabiltzaileekin elkarbizitza bermatzearen.
- Gaztekuaren helburuekin bat datozen iharduerak burutzea soilik.
- Zerbitzuak, ekipamendua, altzariak eta erabiltzaileari utzitako gainerako elementuak zaintzea eta behar bezala erabiltzea.
- Gaztelekuko arduradunei laguntzea, behar bezalako funtzionamendua ziurtatzearen.

- Jarduerak edo gainerako zerbitzuak erabiltzeko eskatu daitezkeen prezio publikoak ordaintzea.

Erantzukizunak

19. artikulua

Gaztelekua erabiltzeak edo bertan iharduerak antolatzeak zuzenean nahiz zeharka ekar ditzaketen kalte edo galera guztiak bere gain hartuko ditu, soilik eta eskusiboki, halakoak sortu dituen erabiltzaileak nahiz antolatzaileak.

Amaierako xedapena

Zarauzko Udaleko Gazteri Ordezkaritzak ebatziko du araudi hau interpretatzerakoan sor litekeen edozein zalantza.

DATUAK

| | |
|-----------------------------|-----------------------------------|
| Hasierako onespina | 1998ko azaroaren 26an |
| GAOn iragarkia: | 1998ko abenduaren 10ean (235 zk.) |
| Alegazioak aurkezteko epea: | |
| GAOn testua: | 1999ko otsailaren 12an (zk. 28) |
| Indarrean: | |